

HERRI JAI FEMINISTAK, 2013
IZAN BURUJABE ETA GOZATU!

Festak eduki sinbolikoa duten jendarte eta kultur adierazpenak dira: errealitatearen adierazle kondentsatu modukoak. Jaiek, norbanakoa kolektibora hurbiltzen dute; prozesu honetan jokoan sartzen diren sentrazio eta emozio anitzen bidez. Gure ustez festak bizitzaren erdigunean daude, baloreen munduarekin erabateko lotura dutelako; herriaren nortasuna, jendarte egitura eta hortaz, bertan ematen diren zapalkuntza eta diskriminazioak ere adierazten dituzte.

Honela, jaiek eta erritoek jendarte ordena erreproduzitzen dute: egungo hierarkia anitzak, botere harremanak, diskriminazioak, rol banaketa... eta oro har, hegemonikoak diren gizon eta emakume irudiak indartzen dituzte. Horregatik, eta gure jaiak nagusitzen diren interes ekonomiko, politiko eta ideologiko guztiz patriarkal eta kapitalistei aurre eta desafio eginez antolatzen ditugunez, ezinbestekoa deritzogu, batetik, jai herrikoiak bazter askotan pairatzen ari diren erasoaldiei aurre egitea, eta bestetik, eskaini eta garatzen dugun jai ereduaren inguruko hausnarketa eta lanketa egiteari ikuspegi feminista batetik. Izan ere, jaietan ere kultura birsortu eta aldatzeko gaitasuna baitugu.

Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, izan ere, lanketa honek berarekin baitakar norberak bere buruarekin egin beharreko lana (guztiok erreproduzitzen baititugu botere harremanak eta bereizkeria egoerak edo konplize garelako) nahiz esfortzu kolektiboa (gure jarduna zein balioaren arabera gidatzen dugun, alegia, zein irizpide ezartzen ditugun hau edo bestea antolatzean, zein mekanismo ditugun zapalkuntza egoerei aurre egiteko, eta abar).

Honela, gure jai eredu alternatiboaren prestaketa, antolaketa, eta garapena bera, prozesu kontziente bilakatu behar dugu zirrikitu guztietatik, eta ezarria den ordena soziala eraldatzeko baliatu: nola antolatzen den jai batzordea (militantzia eredu, parte hartze eta erabakitzeko mekanismoak, lan banaketa), egitaraua osatzeko orduan jarraitzen ditugun irizpideak (zein

ekintza motak balio diguten parte-hartze parekide eta zabala bermatzeko, nola ziurtatuko dugun herritar guztiok gozatu ahalko dugun egitaraua osatuko dugula), eta azkenik, gure jai ereduarekin talka egiten duten egoera diskriminatzaile edo erasokorreari aurre egiteko alde aurretik adosten ditugun erantzunak edo protokoloak.

Gainera, ezinbestean, kontuan hartu behar dugu jai eremu eta egunetan, euforia eta droga ezberdinen kontsumoaren ondorioz, "dena libre" den aitzakiapean sarriago ematen direla era ezberdinetako eraso sexistak. Badirudi, nolabait, bestela egin ezin ditzakegun ekintzak (gaizki ikusia delako edota ez garelako ausartzen) egun hauetan libreki burutu ditzakegula.

Are kezkarriagoa dena, sarritan, erasoak justifikatzeko aitzakia bezala drogen eragina baliatzen dugu (justizia formalak egiten duen gisara). Argi dago ez genukeela ezer lortuko drogen kontsumo basatiari aurre egin bai baina jarrera sexistak landuko ez bagenu.

Honegatik deritzogu ezinbestekoa jai ereduaren inguruko gogoeta egin eta antolaketan zehar zein jaiak ematen diren artean ikuspegi feminista txertatzeari. Honela, jendarte berri eta askeago bat gauzatzeko bidean eredu bilakatuko ditugu jai herrikoiak, eraldaketaren ispilu bilakatuz. Egin ditzagun, bada, festak guztiontzako espazio seguru eta gozamen iturri!

Soilik gure jardunaren eta ekintzen jabe bagara eskaini ahal izango ditugu guztiok gozatzeko moduko ikuskizun, kalejira, harreman, musika, otordu, txaranga, jolas zein dantzak.

Guk eraikitakoa guk alda dezakegu. Eta bide horretan, herri jai feministen aldeko jardunarekin jarraituko dugu aurtengoan ere, bidea fintzen; eta horretarako, orain bi urte sortu genuen *EmakumeokPlazara* proiektua indartzen jarraituko dugu festa batzordeetan eta koordinadoretan. Eta nola ez, festetan, ematen diren eraso sexistak ekiditeko eta salatze bitartekoak jarriko ditugu.

Bitartean, aurten, emakume gehiago izango gara Euskal Herriko plazetan, herri guneetan, txosnetan jaiak askatasunez biziz, gozatuz, dastatuz, usainduz e.a. Gure buruak zainduko ditugu, droga ezberdinen gaineko kontsumo burujabea bultzatuko dugu, eta elkertasuna oinarri izanik jaietan izaten diren eraso sexistei erantzungo diegu Autodefentsa Feministaren bidez.

Izan burujabe eta GOZATU!

Erasorik ez, erantzunik gabe!



euskal herriko bilgune feminista
Euskal Herrian, 2013ko ekaina